

Bilera aurretik:

- Bilera deialdia egiterakoan zein hizkuntzan egingo den adierazi.
- Euskaraz ondo moldatzen ez den norbait badago, laguntzaile bat izendatu.
- Bilera deia, gai zerrenda eta abarrekoak euskaraz idatzi.

Bilera bitartean:

- Bilera hasterakoan, gogorarazi edozeinek egin dezakeela euskaraz.
- Bilerakide guztien artean hizkuntza adostu.
- Bilerakideen artean Belarriprest eta Ahobizi rolak hartu daitezke
- Euskaraz ondo ez dakien norbait badago, saiatu zure euskara egokitzen: poliki egin, ahal bada, batuan.
- Komunikazioa bermatuta dagoenean, eutsi euskarari.
- Ez badakizu ondo euskaraz, adierazi zure lankideei zuri euskaraz hitz egitea nahi duzula, nahiz eta gaztelaniaz erantzun.
- Bileraren bukaeran, balorazio txiki bat egin daiteke: zer egin den ondo eta zer hobetu behar den hurrengo bileretarako.